



JARDUERA

2025-2026 IKASTURTEA



BAZTAN-BIDASOA



HAUR eta GAZTEEN GARAPENERAKO

Programak

ARRETA GOIZTIARRA 0-6 urte artean

Garapenean nahasteak dituzten edo izan ditzaketen haurrei zuzendutako programa da, garapen hoberena lortzeko helburuarekin. Arreta Goiztiarreko zerbitzua, urritasun edo nahasteek sor dezaketen ondorioak gutxitu edo/eta ezabatzeko orientatua dago.

Kuotak:

AT 0-3 urte: Doakoa. Nafarroako Gobernuarekin hitzartua.

AT 3-6 urte: · Astean saio bat (bakarka): **110 € /hilabetean**
· Astean bi saio (bakarka): **220 € /hilabetean**

TREBETASUN FUNTZIONALAK

6 urtetatik hasita, derrigorrezko hezkuntza bukatu arteko haur eta gazteei zuzendutako programa da. Adimen urritasuna edo garapenean nahasteren bat duten haur eta gazteei behar gehien dituzten gaitasunetan (akademiko, sozial edo/eta komunikaziokoak) laguntza ematea duen helburu.

Kuotak: · Banakako saio bat astean: **110 €/ hilabetean** ordu (45 minutu)
· Banakako 2 saio astean: **220 € hilabetean** (45 minutu)
· Taldeko saioa: **61 €/ hilabetean** (45 minutu)

Finkatutako kuotak ANFAS-eko bazkide diren familientzat dira,
horrela ez bada gurekin kontuan jarri.



FAMILIENTZAKO

Programak

FAMILIENTZAKO FORMAKUNTZA

GURASO ETA ANAI-ARREBA TXIKIEN TALDEAK

Programa hau adimen urritasuna edota garapenean zailtasunak dituzten pertsonen senideei zuzenduta dago. Honen helburua beraien ahalmenak garatzea, sistema familiarraren loturak indartzea eta oinarrizko formakuntza ematea da, euren portaera osasuntsua, sortzailea, eraginkorra eta aberasgarria izan dadin.

TEA sekzioa

- FAMILIENTZAKO ESKOLAK antolatzen ditugu, TEA duten pertsonen familiei eta hauekin lan egiten duten profesionalei zuzenduta. Eskola hauetan, familiek zein profesionalek haien egunerokotasunean aurkitzen dituzten traba eta oztopoak azaldu eta hoiien aurrean kontuan izan ditzaketen estrategiak landu eta garatzeko espazioa eskeintzen da. Metodologia teoriko praktikoa jorratzen da. **130 €**
- BALORAZIOAK. Umearen edota nerabearen garapenaren inguruko balorazioak egiten ditugu. Ondoren, txosten batean, familientzako zein profesionalentzako orientazioak proposatzen ditugu eta banakako interbentzio plan bat egiten dugu. **270 €**

INFORMAZIOA eta AHOLKULARITZA

Programa hau adimen urritasuna duten pertsonen eta beraien familiari zuzenduta dago. Honen helburua kezkatzen zaien arloetan eta bere bizi-ibilbidean informazioa eta aholkularitza zerbitzua ematea da.

FAMILIENTZAKO ATSEDENALDIA

Adimen-urritasuna duen pertsona zaintzen duten senideei atsedena emateko asmoz, urtean zenbait asteburutan ANFAS arduratuko da zaintzeaz, inguruko aterpetxetara irteerak antolatuz.

Kuota: 150€/asteburuko



GIZARTERAKO

Programak

GIZARTE SENSIBILIZAZIOA

IKASTETXEAK: Ikastetxeetan ikasleekin zein irakasleekin desgaitasuna lantzeko jarduerak antolatu eta gauzatu. Programa horrek helburu bikoitza du:

- Ikastetxeko ikasleen eta irakasleen sentsibilizazioa.
- Adimen edo garapen desgaitasuna duten ikastetxeko ikasleen inklusioa beraien inguru naturaletan.

Jarduera ikastetxeko beharren arabera oina

BERTZEAK/ BESTEAK: Udalek, erakundeek, elkarteek eta edozein zentro edo kolektibok eska dezakete gizarte-sentsibilizazioko programari buruzko informazioa, jarduera zehatzak antolatzeko.

IZEN EMATEAK

Gure programetan parte hartzeko interesik baduzu, informazio gehiago lor dezakezu gurekin harremanetan jarritz:

rbaztanbidasoa@anfasnavarra.org

Helbideak

Koxkontako bidea · 31770 LESAKA

Franzisko Joakin Iriarte kalea, 2 · 31700 ELIZONDO

San Miguel Auzoa, 9 (Osasun Etxea) · 31740 SANTESTEBAN

Tel: 636 804 504

Diruz lagunduriko erakundea:

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua